

# Maite Arruabarrena

• MEZZOSOPRANO •

■■■ Kantua du ogibide, baina ez duela anbizio handirik dio. ■■■ Hilabete eta erdi luze hotel batean sartuta familiarengandik urrun oso gogorra egiten zaio. ■■■ Aurrera egiteko, ordea, opera munduan gertatzen den guztiari adi dago. ■■■ Gaur Kilometroak 99ren aldeko kontzertu lirikoan izango da Errenterian, eta bihar bertan Madrilera abiatuko da, Monteverdiren *Orfeo* opera kantatzera.

## «Familiaren eta kantuaren arteko oreka dut amets, zaila bada ere»

ERRENTERIAN jaioa da, eta 23 urte arte etxe inguruan ikasia. Atzerritako bidea hartu zuenetik, familia eta lanbidea tartekatuz bizi da.

### ■ Zertan ari zara?

Duela hiru hilabete izan nuen haurra, eta geldirik egon naiz. Hasi naiz kontzertu batzuk egiten, antzinako musika abestuz. Belgikan izan ditut hainbat kontzertu, Frantzian ere bai, Hamabostaldian ere izan naiz, eta igandean Madrilera noa opera bat abastera Teatro Realen. Monteverdiren *Orfeo*. Orain Madrilan izango naiz hilabete eta erdi.

### ■ Psikologia eta kantuaren artean erabaki behar izan zenuen

Beno. Psikologia uztea ez zen erabaki gogorra izan. Baina kantura dedikatzea zailagoa izan zen. Kantari zazpi urterekin hasi nintzen, ikastolako abesbatzan. Hogeita hiru urte arte egon nintzen Andra Mari abesbatzan; han ikasi nuen kantari, eta han deskubritu nuen kantatzea oso gustuko nuela. Inoiz ez nuen pentsatu dedikazio osoa ematea, hala ere. Ondo pasatzeko modu bat zen.

### ■ Ikasketak amaitu ostean etorri ziren kontuak.

Bai. Unibertsitatean egin nuen, baina beti neukan abesteko gauza hori. Unibertsitatearekin batera Orfeoiko eskolan ikasten nuen. Bata eta bestea amaitu nituenean erabaki bat hartu behar nuen. Italiara joan nintzen proba bat egitera, kantuan etorkizunik banuen ikustera.

### ■ Proba positiboa izan zen orduan?

Bai. Proba egin eta berehala animatu ninduten, eta esan zidaten aurkezteko Toti Dal Monte nazioarteko lehiaketara. Aurkeztu eta irabazi egin nuen. Ni izan nintzen lehenengo harritua.

### ■ Lehiaketa izan zen profesional izateko urratsa?



AMAIA ZABALO

Bai, erabat. Lehiaketaren ondoren hasi ziren deika; lehiaketa bat irabaztean, batez ere atzerrian, bat-batean oso ona zara. Garrantzi handia ematen zaie lehiaketei.

### ■ Italian izandakoa zara ikasten, beste asko bezala. Zer topatzen du kantariak Italian?

Tradizio handia, hemen baino askoz gehiagoa dago. Operaz hitz egitean beti Italia etortzen zaigu burura. Kon-

positore eta antzezleku asko daude. Jendea ohituagoa dago. Ez zait gustatzen esatea derrigorrez Italiara edo beste lekuren batera joan behar dela ongi ikastera, baina etxetik ateratzea beti da aberasgarria.

### ■ Askotan esaten da mezzosopranoaren ahotsa grabagoa dela. Mezzoak, ordea, sopranoak adina igo behar du batzuetan... Zein kolore du mezzoaren ahotsak?

Mezzosopranoaren ahotsaz askotan esaten da hori, errazena da esatea ahotsa grabagoa dela, agudo gutxiago dituela. Ez da egia, ordea. Ahots mota asko daude. Azken finean, beharbada mezzosopranoa den erabakitzerakoan koloreak erabakitzen du. Lodiagoa da, eta erosoago sentitzen da zentroan mugitzen denean, goian abesten duenean baino. Goian kantatzen nekatu egiten da. Badaude mezzoak oso

### Ahotsa

«Abeslariaren arabera da, baina kontu asko dago. Nik ez dut batere zaintzen. Bizimodu normala egiten dut»

gora joaten direnak. Baina gustorago dago erdian.

### ■ Kantariak gauza guztiak bere ahotsaren zerbitzura egin behar dituela esaten dute kantari askok. Horrenbestera da?

Abeslariaren arabera da, baina kontu asko dago. Nire kasuan ez dut ahotsa zaintzen, ez dudalako horren beharrik. Bizimodu oso normala egiten dut. Ez dut erre-tzen, ez dut gehiegi edaten, gauza horiek, baina ez besterik. Ez da horrenbestera.

### ■ Nola lantzen da ahotsa?

Egokiena da egunero bokalizazio batzuk egitea. Muskulu bat da, beste edozein muskulu bezala. Kirolari batek bezala, landu behar du egunero pixka bat. Ondo egoteko egunero abestu behar da.

### ■ Zaila da aurrera egitea?

Nire ustez, oso zaila. Niretzat familia oso garrantzitsua da. Karrera inportante bat egin nahi baduzu kanpora irten behar duzu, eta beti adi egon, eta horrek asko estresatzen nau. Anbizio handirik ez dut eta askotan arazoak sortzen zaizkit. Kanpoan nagoenean oso gogorra egiten zait, bakarrik egotea hotel batean sartuta, hilabete baino gehiago, familiarengandik urrun.

### ■ Karrera luzerako duzu. Noiz arte kantatzen duzue, gutxi gorabehera?

Adibidez, Berganzak kantatu zuen duela egun batzuk Donostian, eta baditu hirurogei urte baino gehiago. Nik uste dut emakumeetan hori dela adina, nahiz eta ahots batetik bestera asko aldatzen den. Hogeita hamabost urte ditut, eta nire bizimodua hori da. Ahal dudan arte jarraituko dut.

### ■ Zure karrera profesional zer duzu egiteko?

Opera izen bat ez nizuke esango, oso zaila da. Helburua lana ondo egiten jarraitzea da. Lan gehiegi egin ere ez dut nahi, familiarekin egon nahi dut. Familia eta kantuaren artean oreka lortzea dut amets. Hiru edo lau proiektu interesgarri egitea urtean, eta etxean egotea. Baina hori oso zaila da.

**Amagoia Mujika**

DONOSTIA

## Kilometroak 99 eta lirika

KILOMETROAK 99K antolatuta, kontzertu lirikoa izango da gaur Errenterian. Lau abeslarik kantatuko dute, Aita Kaputxinoen elizan, 20:30etan.

Maite Arruabarrena mezzosopranoa, Izaskun Arruabarrena sopranoa, Joxan Matxain baxua, Maria Mendizabal sopranoa eta Itziar Lesaka sopranoa izango dira kantari. Imanol Elizasu piano joleak lagunduko ditu kantariak okasiorako aukeratu dituzten doinuak.

Euskal konpositoreen abestiak eskainiko dituzte: Sorozabal, Aita Donostia, Guridi, Garbizu eta Almandozen konposizioak

interpretatuko dituzte, beste hainbaten artean.

Oso ezagunak eskainiko dituzte, Maite Arruabarrenak esan duenez: «Jendeak oso gustura entzungo ditu abestiak. Gehienak ezagunak dira; abeslariok aukeratu ditugu piezak, eta saiatu gara ezagunak ez ezik politenak aukeratzeko».

Kantari guztiek kurrikulum interesgarria dute, etxean eta atzerrian osatua, eta etorkizunerako proiektu asko. Guztiek Errenterriako Andra Mari abesbatza izan dute abiapuntu.

Kontzertua doan izango da.